


## FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuarekin aurrera jarraitu ahal izateko, funtsezko jarduerak izenekoak kontuan hartzea beharrezkoa dugu. Izan ere, negozioak funtziona dezan egin behar diren jarduerak dira definizioz. Hori kontuan hartuta, balorezko proposamenak egiteaz gain, bezero potentzialarengana iristeko eskumena izango dugu. Horrez gain, bezeroekiko harremana mantendu eta diru sarrerak lortuko ditugu.

Gure balio proposamena gogoratzea garrantzitsua da. Lehenik eta behin, gure gizartean aurreikusi genuen arazoetako bat klima aldaketa izan zen. Gure helburua hori hobetzea da, horretarako, aplikazio bat sortu dugu. Bertan, hainbat hitzaldi, birziklatzeko jolasak, albisteak, kamara bat zaborra nora bota behar den esango duena, eta kexak ipintzeko leku bat egongo da. Aplikazio honen bidez, klima aldaketa hobetuko dela uste dugu, eta azkenean jendea kontzientziatuko dugu benetan duen larritasunaz eta dagoen arazoaz.



Alde batetik, diseinuari dagokionez, gure oinarrizko aplikazioa irekia izango da, hau da, edonork izango ditu atal guztiak eskuragarri. Hala ere, lehen aipatu bezala, ordainduz gero, beste hainbat aukera izango ditu bezeroak. Horrez gain, zehaztekoa da aplikazioa bost ataletan banatua aurkituko dela. Lehengo atala, albisteena, hiru egunetik behin berrituko dugu, beste lau albiste berri eskainiz. Jokoaren atalean, berriz, oinarrizkoan, zakarrontziak eta zaborra kalean egongo dira. Hortaz gain, zaborrari argazkiak ateratzeko gune bat egongo da. Laugarren atalean, bezeroek kexak adierazteko gune bat edukiko dute. Azken atalean hitzaldiak kontuan hartuko ditugu. Gure taldearen helburua kontzientziatzea denez, hitzaldiak egitea erabaki genuen kanpo-harremanak hobetzekotan. Azken hauek grabatuak izango dira eta aplikazioan txertatuko ditugu.

Premiunean, bestalde, hainbat ataletan gauza gehigarriak edukiko dituzte. Horien artean, lau albiste eduki beharrean zortzi edukiko lituzkete. Jokoan beste paisai bateko zaborra jasotzeko aukera edukiko lukete. Azkenik, hitzaldien atalean, astean hiru bideo edukiko lituzkete. Horrez gain, publizitatea ez azaltzeko eskubidea eskuratuko dute.

Hori dena kontuan hartuta, merkatu segmentuan azaldu dugun bezala, bezero mota bakoitzak berari bideratutako atala izango du. Adibidez, haurrentzat jolas bat egin dugu, aldiz, pertsona helduentzat hitzaldiak eta albisteak egongo dira. Ildo beretik, gure aplikazioak premium aukera ere izango du, ordaintzen duten bezero orontzat.

Bestalde, gure produktua sareko jarduera bat bezala izendatzen dugu. Hain zuzen ere, plataforma teknologiko edota internetean oinarritutako negozio bat delako. Zehaztasun osoz, argi eta garbi dago aplikazio bati buruz hitz egitean, plataformaren gestioa, etengabeko mantenua eta plataformaren promozionatzea egunerokotasunean kontuan izan behar diren bi kontzeptu direla. Lehenengoari dagokionez, aplikazioaren gestioan, inor kontratatzea erabaki ez dugun momentutik, eta gaitasunak ditugun momentutik, hontaz gu, langileak gestionatzeaz arduratuko gara. Bigarrenari dagokionez, hasiera batean bezeroei iruzkinak egiteko aukera eskainiko diegu. Beraz, arazoren bati kezu egitean, berehala hortaz arduratu beharko gara, etengabeko mantenua bistan jarriz. Hirugarren eta, beraz, azken urratsari dagokionez, plataforma promozionatzeko publizitateaz eta ahoz-ahoko komunikazioaz baliatuko gara. Horri esker, bai gertukoak bai urrutikoak erakartzea lortuko dugulakoan gaude.